



GOIERRITARRA

Artisaualdia



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

Edozein motatako
teilatuak egiteko
prestatuak, komunitateak,
baserriak, txaletak eta abar



Harlandu S. Coop batez ere profesionalen osatutako giza taldean oinarritzen den enpresa da. Bere azken urteetako esperientzia handia azken teknikekin lotu du diseinuan eta marmol, granito eta harrien akaberetan.

Horrela jaio da Harlandu, bere abangoardiako teknologiari inizatiba eta bere profesionalen taxua batu dizkion kooperatiba.



Zubierreka industrialdea, 52 • LAZKAO
Tel.: 943 882 465 • Tel. eta faxa: 943 887 249

MARMOL, GRANITO ETA HARRI LANAK • SUKALDE ETA BAINUKO GAINAK • FATXADA ETA ZORUEN ESTALIAK • LAPIDAK



 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Nekane Altuna, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastortza,
Edurne Albizu, Iñaki Ugalde, Jo-
seba Etxezarreta, Aitziber Murua,
Agurtzane Bikuña, Josu Irastorza
eta Xabier Mendiguren Elizegi.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**On Joxe Migel Barandiaranek
filmaturiko pelikulak aurkitu dira**

1928 eta 1934 urte bitartean
On Joxe Migel Barandiaran
etnografo eta antropologoak
filmatutako hainbat pelikula
txukundu ditu Euskadiko
Filmategiak. 1998 amaiera
aldera Joxe Migel Barandia-
ran Fundazioak jakinarazi
zion Euskadiko Filmategiari
aurkikuntza honen berri.
Urriaren leian egin zuten fil-
meen aurkezpena.

Filmak 16 milimetrotan
daude grabaturik. Gasteizko
Agirre apaiztegiko bizitza
eliztarra agertzen batik bat.
Barandiaran bera ere ageri
da filmetako hainbat eszena-
tan, ikasleen artean edo ka-
meraren aurrean jarrita, be-
rezkoak zituen bizitasuna eta
umorea azalduz.

Ataundarraren ikasle
izandako apaizen arabera,
Aita Barandiaran zinemaza-
lea zen. Apaiztegiaren zinema
emanaldiak antolatzen zi-

tuen eta kamera eskuetan
ibiltzen zela gogoratzen du-
te.

Filmeak Ataungo Sara
etxean ondo gordeta bazeu-
den ere, galtzeko arrisku
handia zegoela eta Euskadi-
ko Filmategiarekin harrema-
netan jartzea erabaki zuten.
Materiala jaso eta aztertu on-
doren, Filmategiak segurtasun
negatiboak eta kopia bat
egin zituen. Guztira 44.160
fotograma txukundu dituzte
banan-banan Filmategikoek.
Barandiaran Fundazioak eta
Euskadiko Filmotekak erdi-
bana ordaindu dituzte berri-
kuntza gastuak. Jesus Altuna,
Fundazioko lehendakariak
eta Barandiaranen ondona
denbora askoan lanean
aritutakoak adierazi duenez,
argazki kamera eskuan eza-
gutu zuen ataundarra baina
sekula ez omen zion zinema
kamerarik ikusi.

BOTA BERTSOA



Haritz Zeberio

Nafarroa oinez



*Doinua: zortziko
nagusiko edozein.*

Orain bi aste Oreretara
etzi Iruñara berriz
naparrak ere beti bezela
txuri, berde eta gorriz
heldu ta gazte josi dezagun
Iruña poz eta irriz
Euskal Herria indartu asmoz
hego haize berri berriz.

Ikastola bat izango dugu
ekimenaren epaile
makina bat haur gelditzen denez
euskaraz ikasi zale
denon apurra elkartuz gero
izango gara garaile
Sahara ere osatzen baita
hondar alez, hondar ale.

**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Jose Luis Lasa jauna:

Berriro hemen natorkizu lerro batzu idatzirik, hortara behar-tu ninduzulako. Zuri erantzunez, Ordiziako Artzai-Gazta Sariketaren lehendabiziko hiru urteetako ibilaldiak noiz eta nola izan ziren garbi gelditu ziren GOIERRITARRA aldizkarian.

Handik egun gutxiren barruan, zure idatzi bat azaldu zen, gai berarekin, 'El Diario Vasco' egunkarian, zuzenketa moduan, baina bukaeran pozoiez betetako oso intentzio txarrarekin jarritako hitz batzukin: '... el 1er año fracasó'. Hitz horiek pertsonalki niri zuzenduak ziren, eta zuk ezin dezakezu zure ezagueraz ezertxo ere jarri, besteez esanda baizik, eta nazka ematen dit, bat baitakit zeinek esanda izan zen edo zeinen bidez jarri zenuen gezur ustel hura.

Erantzunari denbora ematea erabaki nuen, lasaitasunez hobeto aztertzen eta gogoratzen direlako gertatuak. Baina esaera zaharrarekin egin nuen topo bidean. 'Gizonak proposatu eta Jainkoak eragin' eta horrela gaur arte; hala ere, ez da denbora galdua izango, egia argituta gelditzen bada.

Ordiziako udalean, Artzai-Gazta sariketa, 1964ko Euskal Festetan sartu behar zena-ren eskaria ontzat hartu zenetik, Jaien komisioko ardura-dunen esku geratu zen sariketa berri hura ondo ateratzeko ardura guztia. Bazekiten lehendik etzala sariketa hori ezagutzen, berria zela, eta ho-

rrela izanik, promozio lan handia egin behar zela; ikus dezagun bada ea ardura hori nola bete zuten.

Euskal Festetako egitarauaren esku-programak zortzi egun aurretik zabaldu ziren peri egunez eta bertan sariketara ateratzen ziren jeneroen zerrendaren erdi-parean 'Concurso de Queso Artesanal de Pastor' azaltzen zen. Hortik aurrera ez zen ez albisterik ezta adierazpenik ere izan, ez irratiz ez egunkarian, eta garrantzi handiena zuena, komisioko buruek ez zuten Udaletxeko arkupe aurrean, artzai-jendea ibiltzen zen tokian, pregoi edo bandorik zabaldu arazi, hurrengo asteazkeneko Euskal Festaren barruan Artzai-gazta Sariketa izango zela eta hiru sari izango zirela adieraziz. Kontutan izan, garai hartan, artzaiek, arkupe horietan zabalitzen zituztela gaztak, eta tamalez interesatuei sariketaren berri ematea, bandoa zabaldu araztea ere ez zuten egin.

Eguna iritsi zen eta Gazta Sariketaren mahaia enparantza nagusiko goiko arkupearen aurrean jarri zuten. Ikusirik hutsik zegoela kezkatzen hasi nintzen, ez baitzegoen ez gaztarik gainean, ez artzairik inguruan, ezta zinegotzi arduradunik ere; denbora pasa ahala, bakarrik utzi nindutela konturatu nintzen eta Gazta Sariketa, bere lehendabiziko urtean, parregarri geldituko zela. Hau ikusirik, Udaletxeko arkupera joan, bertan gazta saltzen zeuden artzaiekin hitzegin eta ea lau bat artzai,

gazta banarekin, eramaten nituen, sariketari itxura pixka bat emateko, bururatu zitzaidan. Pentsatu bezala bertara joan nintzen eta han, bere ondoan saltzera ekarritako gaztak zituztela, zeuden artzaiei Artzai-Gazta Sariketa zegoela azaldu nien, eta goiko arkupean horretarako prestatuta zegoen mahaira azaltzeko eskatu nien, bertan atendituko nituela eta. Berehala konturatu nintzan artzaiek gazta saltzeko asmotan etorri zirela perira, eta Sariketaren ideiarik ere ez zutela; beraz, ez zen inor horretarako prestatu, eta ez neukan denbora galtzerik.

Hau dena zela eta, gertu zegoen Joseba Garmendia artzai-gazta saltzailearengana joan nintzen. Gaztaz betetako saski bitarte bat zeukan, itxuraz zoragarriak. Mesede eske netorkiola esan nion, saski hura, gazta eta guzti, goiko arkupean horretarako jarria zegoen mahai gainera eman zezan, saria izango zuela aginduz. Berak artzaia ez zela erantzun zidan; nik, berriz, banekiela esan nion, baina, artzaiek prestatu ez zirenez, mesedez eramateko hala ere. Horrela eramane zituen.

Esku programetan 'Concurso de Queso Artesanal de Pastor y tres premios' argitaratu, horretarako mahaia jarri eta artzain bat bera ere ez presentatzeak, garbi asko azaltzen du Festetako komisioko arduradunen jokaera nolakoa izan zen, hau da, sariketa berri hura ondo atera zedin behatzik mugitu ere ez zutela egin, eta horien erruarengatik

jaso zuela Udalak halako porrota.

Dena den, mahaiairen gainean izan ziren gazta haiek izan ziren komisiokoen hutsuneak bete zituztenak eta porrota disimulatu zutenak, baita aurrerako bidea argituta utzi zutenak, hurrengo urtetik ikusi zen bezala.

Guk egindako guztia Herriaren alde eginga izan zen borondate osoz, eta zuk niregatik jarritako '... el 1er año fracasó', nireganako irain zikin bat da, Lasa Jauna; gizatasuna dagoen tokian ez da horrelakorik gertatzen.

'La Voz de España' egunkarian ateratako informazioa:

1963-IX-03an, 11. orrialdean: Euskal Festen barruko ekitaldiak iragartzen dira. Tarteetan, bertako gaztaren erakusketa aipatzen da, Plaza Nagusiko arkupeetan ospatzekoa zena.

1963-IX-04an, 11. orrialdean: aurreko eguneko informazio berra.

1963-IX-06an, 11. orrialdean: Gazta lehiaketako sailkapena: 1goa Felix Zabaleta (Araia), 2.a Francisco Murua (Zaldibia), 3.a Angel Arrese (Ziordia) eta 4.a Ricardo Perez (Agurain).

1964-IX-09an, 11. orrialdean: Euskal Festen barruko ekitaldiak iragartzen dira. Tarteetan, bertako frutu, barazki eta gazta lehiaketen berri ematen da.

1964-IX-10ean, 7. orrialdean: Gazta lehiaketaren sailkapena, lehenengotik 10.era: 1. Felix Zabaleta (Araia), 2. Migel Munduate (Zaldibia), 3.a Jose M. Oiarbide (Zegama), 4. Ricardo Perez (Agurain)...

Inazio Munduate Aiestaran

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

TXANDAKA

Goierriko Guggenheim

Herri guztiek nahi dute orain turistikoak izan: bisitariak etortzea, dirua uztea, horrekin lanpostu batzuk sortzea... Nahia ez da aski ordea: zerbait eskaini behar zaio kanpotar horri hona etor dadin. Goierrik ez du edertasunik faltan, noski; gure paisaia eta mendiak, batez ere, baina horrez gain azpiegitura bat behar omen da, kultur eskaintza bat...

Gogoeta bat bururatzen zait niri honen inguruan: kanpokoarentzat erakargarri gertatzeko, geure burua zaindu beharra dugu. Kultura euskaldun sendo bat baldin badugu, geronek eta gerontzat sortua, zerbait berezi eta apartekoa emango diogu bisitariari ere; geure bazterrak txukun baldin baditugu, atsegingarri izango dira besteentzat ere. Ez dugu kamarero sentitu behar, etxeko jaun baizik, geure izaeraz eta ondasunaz harro.

Hala ere, duguntxoia ezagutzen eta maitatzen hasi beharko genuke, orain arte baino gehiago. Esate baterako: Goierri osoan balio artistikoa duen eraikuntza moderno bakarra ia erorian dago, guztiz desitxuratuta. Zein?, galdetuko duzue: Iurreko gasolindegia. Ez da Kursala ez Guggenheima, baina formen edertasun harmoniko bat du, Olaberrirako zubitxotik oraindik ere mirets litekeena. Begiraiozu hurrena Prycara zoazenean, eta ohartuko zara.

Xabier Mendiuren Elizegi



Goenkale jarraitzen al duzu?

Andoni Berasategi 24 urte, irakaslea ordiziarra

Ez dut sekula jarraitu. Telebista gutxi ikusten dut eta zaila da nik telesail bat jarraitzea.




Jose Luis Agirre 71 urte, erretiratu ordiziarra

Ez dut jarraitzen. Horrelako gauzak ez zaizkit gustatzen, nahiago dut kirola ikustea.



Hasier Agirre 22 urte, langilea beasaindarra

Egunero ikusten dut. Hala ere hasierako kapituloak gehiago gustatzen zitzaizkidan.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



IBAI-ONDO

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

'Bienvenidos a la casa de muñecas'

Todd Solondz (EEBB, 1996)

Todd Solondz iazko karteldegiko ezustekorik handienetako izan zen, Happiness bere bigarren lan gogor eta eztabai-datuari esker. Lehenengo film honetan ere, pertsonen arteko komunikazio arazoan gai zailari heltzea gustoko duela agerian utziz, istorio ilun eta gordina sortuko du Dawn Wiener 11 urteko neskatilaren azalean sartuz. Nerabe honek ez du lagunik, ingurukoek ez dutela ulertzen, are gehiago, gutxiesten dutela sentitzen du, eta familiarengan ez du laguntzarik topatzen.

ZINEA

GOIENIZ:

Urriak 21, 'Bienvenidos a la casa de muñecas' eta 'Esposados' laburmetraia, 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Urriak 21, 'Novio de Alquiler', 20:30ean, Herri Zinemak.

LAZKAO:

Urriak 20, Donato Goienetxe eta Edurne Iturbe, trikitixa eta perkusio bikotea, Maizpiden, 21:00etan.

Urriak 23, Fist Fucking eta Araujo y los mecanicos taldeen kontzertua, 20:00etan, plazan.

Urriak 23, Drindots, 22:30ean, plazan.

ORDIZIA:

Urriak 21, Alemaniako Norddeutscher Figuralchor abesbatza, Elizan, 20:00etan.

Urriak 27, Esloveniako Ljubljane Madrigalisti abesbatza, Elizan, 20:00etan.

Azaroak 1, Austriako Stimmen abesbatza kontzertua, Elizan, 20:00etan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Urriak 22, Beasaingo Errail antzerkia taldea, Herri Antzokian, 20:30ean.

MUSIKA

BEASAIN:

Urriak 23, Iñaki Martin eta Julio Martin. Poesia emanaldia eta erakusketaren inaugurazioa, Aterpe tabernan, 23:00etan.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Urriak 27, Arrate Leunda kontu kontalaria, Ezkiaga Auzo Etxean, 18:30ean.

IKUSENTZUNEZKOA

LAZKAO:

Urriak 27, Jexux Lopez en 'Landareen sexua' diaporama, Maizpiden, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 22ra bitartean, Victoria Monteolivo argentinararen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Urriaren 15etik 24ra, Jesus Maria Tolinen kirol argazkiak, Usurbe antzokian.

LAZKAO:

Urriaren 18tik 29ra, 'Gipuzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioa', Elhuyarrek, Kultur etxean.

ORDIZIA:

Urriaren 22tik azaroaren 21era, Antton Mendizabalen eskultura erakusketa, Barrenan.

Euroari buruzko jardunaldiak Beasainen

Merkatariei zuzenduta, Euroari buruzko jardunaldiak izango dira Beasainen, urriaren 25etik 28ra. Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak antolatutakoak dira jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren diru-laguntzarekin.

Informazio gehiagorako eta izena emateko telefonoa: 943160673.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 17: Iruñeako Nafarroa Oinezera.

Urriak 24: Beteranoen martxara.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 17: Iruñeako Nafarroa Oinezera.

Urriak 24: Beteranoen martxara.

IRAILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Borrokaren gorrian**
Bikila (Txalaparta)
- 2- Euskara-Ingelera**
Morris (Harluxet)
- 3- Putzu**
Txillardegia (Elkar)
- 4- Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak**
Pilar Cristobal (Txalaparta)
- 5- Enaz banaz** Xabier Amuriza (Bertsolari liburuak)

DISKOAK:

- 1- Berri txarrak**
'Ikasten' (Gor)
- 2- Izurri Berria**
'Izurri Berria' (Izurri)
- 3- Xabier Montoia** 'Lagunak, adiskideak...' (Esan ozenki)
- 4- Fermin Muguruza** 'Brigadistak Sound System' (Esan Ozenki)
- 5- Mikel Urdangarin** 'Badiara hiru aste' (Gaztelupeko hotsak)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

943 88 05 65 OLABERRIA



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 943 88 98 44 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

❑ Etxebizitza salgai Beasainen, erdigunean. Berritua eta mobleztatua. 2 logela, egongela, bainua eta sukaldea. 40 m²ko lur sailarekin. 943888441.

❑ Pisua salgai Beasainen. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua. Ganbara ere badauka. 943888318. Deitu 13:30etik 16:00etara eta 20:30etik aurrera.

❑ Garagea salgai, 2 pisukoa. Ura ere badauka. 943888318. Deitu 13:30etik 16:00etara eta 20:30etik aurrera.

❑ Lokal edo garage bat alokatuko genuke, sei bat kotxe sartzeko. Ez dio ajola zein herritan. 30.000 / 35.000 pezeta ingurukoa. 943882257.

❑ Etxebizitza salgai Itsasondon. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainuarekin. 689650850.

❑ Neska bat behar da Gasteizen pisua osatzeko. 943180173.

❑ Etxebizitza salgai Zaldibian, Urtesabel auzoan. 5.000.000 pezetan (negoziagarria). 943161072. Mari Tere.

❑ 3 lagun behar dira Leioan pisua osatzeko. 943-883665 - 943524820.

❑ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943-886834.

❑ Etxebizitza salgai Lazkaon, 3 logela, sukalde-egongela, 2 terraza, ganbara eta bainuarekin. 943161357.

❑ Neska bat behar da Deustun pisua osatzeko. 943887181 edo 943650077.

Salerosketak:

❑ Euskal ponnyak salgai. 943168919.

❑ Kaldera salgai, mixtoa, gasoleoarena. Prezio onean. 943180264.

❑ Pastor aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedigreearekin. 696057346.

❑ 'Comanche' kanpin gurdia salgai. Prezio interesgarria. 943885923.

❑ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

❑ Cady motorra salgai, 20.000 pezetan. Egoera onean. 943162510.

❑ Pigini akordeoi botoiduna (ia berria) salgai. 943465724.

❑ Euskal artzai txakurkumeak salgai. 943801467 - 617213340. Txema Lardizabal.

❑ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

❑ Peugeot ST 50 zm³ko motorra salgai. 943887041-943160926.

❑ Ford Fiesta autoa, gorria, salgai. 943881938. Karlos. 20:00etatik aurrera deitu.

❑ Cocker hispaniel ingeleza eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

Bestelakoak:

❑ Inork 'Mikelen heriotza' pelikularen bideo badauka, jarri Maiterekin harremanetan. Harremanetarako telefonoak: 943886765 - 943880443.

❑ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 943470001. 17:00etatik 19:00etara deitu, ostegunetan izan ezik.

❑ Segura Futbol Taldeak entrenatzailea behar du. 943801092 (Iñaki Albisu).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia)
943882934.

Urriak 16-17: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia)
943160949.

Urriak 23-24: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain)
943880232.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA - AKADEMIA INTEGRALA

HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK GOIERRITARREN ZERBITZUAN

Eskola laguntza:

- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Lehen Hezkuntza (6urtetik)
- ✓ DBH, DBHO
- ✓ Ziklo formatiboak

Unibertsitate maila:

- ✓ Enpresaritza
- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Kmika
- ✓ ...

Kontabilitatea:

- ✓ Eskuz, ordenagailuz
- ✓ Contaplus
- ✓ Nominaplus
- ✓ Facturaplus

☎ 943 160 120

Joan Iturrilalde, 5

BEASAIN

Hauxe da Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoaren lehen urratsak erakutsi digun ondorio nagusia. Normalizaziorako oinarri sendoa dagoela iritzi dute Planaren parte hartzen ari diren eragileek.

Bai Euskarari Akordioa sinatu duten 687 eragile sozialek ekainaren azken astean ekin zioten Plan Estrategikoaren diseinuari. Jakina den bezala, Planak euskararen normalizazioaren inguruko gogoeta markoa eskaintzea eta gizarteak talde guztiak euskararen aldeko neurriak hartzera eragitea du helburu. Planaren lehen urrats honetan, 23 sektoreetako eragileek gaur egun gure hizkuntzak bizi duen egoeraz hausnarketa egin eta diagnostiko bat plazaratu dute. Etorkizunerako erronkatzat jo dute partehartzaileek euskararen garapena eta euskararen inguruan gizarteak duen pertzepzioa nabarmenki ari dela aldatzen ondorioztatu dute. Euskalgintzak honen inguruan egindako diagnostikoarekin bat dator oro har gizarte eragileek egindako deskripzioa.

Balorazio orokorra

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilutik, oro har, oso positibotzat jo dugu Plan Estrategikoaren lehen urrats honetan egindako lana. Bai Euskarari Akordioa sinatu duten 687 eragilerekin burutu den gogoeta-saio honek oso datu interesgarriak eskaini ditu gaur egun gure hizkuntzak bizi duen egoeraz jabetzeko. Gizarte osoaren ordezkartza bermatzen du Planaren metodologiak eta zentzu horretan esan daiteke gizarteak euskararen egoeraz duen pertzepzioa zehaztasun handiz ezagutu ahal izan dela. Bilera horietatik ateratako ondorioek erakusten dutenez, gizarteak etorkizunerako erronka garrantzitsutzat jotzen du euskararen normalizazioa.

Partizipazio arrakastatsua

Koantitatiboki begiratuta, oso partizipazio ona egon da lehen fase honetan. Kontuan izan ehunka eragilerekin ari garela lanean eta horiek guztiak informaturik eta prozesuan inplikaturik egotea, oso konplexua izanik ere, bermatu egin baita. Hala ere, bilerak aurreikusitako partizipazioz burutu dira, espero ziren indizeak gaundituz kasu askotan, beti ere, salbuespenak salbuespen.

"Euskara etorkizun hizkuntza da"

Koalitativoki aztertuta, oso partizipazio aktiboa eta aberasgarria izan da oro har. Bereziki azpimarratzekoak dira:

- Eragileek prozesu honek eskatuko dien ahalegina egiteko prestutasun handia erakutsi dutela. Lanerako gogo handia erakutsi dute eta hori, du-darik gabe, oso abiapuntu ona da prozesuaren arrakastari begira.
- Motibazio handia erakutsi dute, gizartean nabarmentzen ari den euskararen aldeko jarrierari erantzun behar diotela iritzita.
- Prozesuaren seriotasun teknikoa azpimarratu dute. Horrelako gogoeta sistematikoa eta partehartzailea egiteko premia handia zegoela nabarmendu da.

Oro har, nahikoa irakurketa homogenea eta aberasgarria egin da sektore guztietan. Lantaldeetan azpimarratu dira euskararen egoerari, negatiboki zein positiboki, eragiten dioten antzeko faktoreak eta horiekin batera, noski, sektore bakoitzari dagozkionak. Ondorio horietara iristeko oso eztabaida saio interesgarriak izan ziren bileratan, eta horri esker, diagnostikoa nabarduraz betea da. Sektore guztietan egindako bileretan, guztira 200 bat faktore desberdin aipatu ziren. Nagusiki azpimarratu eta erabakigarritzat jo zituztenak dira ondoren aztertuko ditugunak. Euskararen inguruko gogoeta gizarte osora zabaldu izanak gaur egun bizi dugun egoeraren gaineko erradiografia nahikoa zehatza eman digu.

Sektorearen barrutik zein kanpotik euskarari negatiboki eragiten dioten faktoreen artean, ondoko diagnostikoa egin dute gizarte eragileek.

Egoera soziolinguistikoari dagokionez, euskaldun kopurua txikia da oraindik eta horren ondorioz, eskari soziala ez da nahikoa. Horri gaineratu behar zaio euskarak gaztelaniarekiko linguistikoki duen distantzia, horrek euskalduntze prozesuaren erritmoa moteltzen duelarik.

Soziopolitikoki, bestalde, bizi dugun egoerak euskarari negatiboki eragiten diola iritzi dute gizarte eragileek. Bate-tik, euskara politikoki erabilia izateko dagoen arriskuarengatik eta, bestetik, gizartearen eta administrazioen arteko bereizketa areagotu delako; azken honen ondorio gisa aipatu ziren ondoko faktoreak: egoki joko litzatekeen sustengurik ez izatea administrazioen aldetik, bitarteko nahikorik ez egotea eta euskararen lurraldean dauden administrazioen arteko erritmo desberdinak. Oro har, gizarte erakunde bakoitzak eta sektore gehienek euskararen aldeko planik ez izatean laburbiltzen dira puntu honen inguruko faktoreak.

Bestalde, euskarak garatzeko balia ditzakeen aldeko faktoreak, sektorearen barrukoak zein kanpokoak, honela laburbil daitezke:

Gizarteak euskararekiko duen pertzepzioa nabarmen ari da aldatzen eta etorkizuna euskaraz datorrela uste dute gizarte eragileek.

Oro har herritarrek euskararen aldeko joera azaltzen dute; horrez gain, euskaldun kopurua handitzen ari da eta horrek eskaera soziala areagotzea eragin du jadanik. Euskara faktore integratzaileztat jotzen da gizartean eta balio erantsia da, gainera, herritarrentzat.

Faktore negatibo eta positiboak gurtzatzean, beraz, euskara etorkizun hizkuntza dela ondorioztatu dute gizarte eragileek. Diagnostikoa nabarmendu diren faktore negatiboei parez pare jarri zaizkie aukera eta indarguneak, hots, faktore positiboak. Beraz, koantitatiboki eta kualitatiboki euskararen gaineko pertzepzioa aldatzen ari dela eta gizarteak normalizaziorako oinarri sendoa ikusten duela baieztatu daiteke.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua

ERREZETA



Berni eta Maite
Itsasoko Ostatua
Ezkio-Itsaso

SAGAR TARTA

Osagaiak: 200 gramo gurin, 250 gr. irin, 125 gr. azukre, 2 arrautza, legamia, errezil sagarrak eta pastelera krema.


Bizkotxozko oinarria egin. Horretarako, lehenengo gurina urtu eta irina, azukrea, arrautzak eta legamia nahastu. Ordu betean atseden hartzen utzi.

Tartera gurinarekin igurtzi eta orea zabaldu. Labean sartu, erdi pareko beroarekin, 20 minutuz.

Errezil sagarrarekin konpota egin. Orearen gainean jarri konpota eta ondoren pastelera krema. Errezil sagarrak xerratu eta kremaren gainean jarri. Labean sartu, kolorea hartzeko.

Zerbitzatzerakoan mermelada jarri.

AHOLKUA



Josu Irastorza
Fisioterapeuta

Hilabete bat barru jende artean hain onarpen handia duen Behobia-Donostia lasterketa izango dugu gure artean. Askorentzat ariketa pixka bat eginez ongi igarotzeko egun bat. Batzuentzat ordea, urtean zehar egiten duten ariketa bakarrenetakoa da froga hau. Eta jakina da, nahiz eta "katxondeo" moduan hartu, 21 kilometrotako lasterketa izanik, gutxieneko prestaketa bat eskatzen duela.

Entrenamenduetan hasteko, askok hain desatseginak suertatzen diren min batzuk pairatzen dituzte: agujetak. Hauei buruz gauza asko esan izan da. Agujeten sorrerari buruz zabalduen dagoen teoria azido laktikoaren pila-ketarena da. Giharretan piltzen doala eta jasaten duen kristalizazio prozesu baten ondoren, frikzio bat sortzen dela giharretan honek mina sortarazten duelarik. Arrazoi hau erabat baztertu behar da, azido laktikoak ez baitu inongo eraginik agujetak sortzerako garaian.

Azido laktikoa nekea

Agujetak

neurtzeko tresna bat besterik ez da. Bere kontzentrazioaren arabera kirolaria neke egoerara inoiz iristen den jakin dezakegu. Hortik aurrera errendimendua ez da igoko. Hori dela eta, azido laktikoaren azaltzea atzeratuz, neke egoera hori ere atzeratzea lor genezake. Baina azido honek ezingo luke inola ere agujeten sortzaile izan, ariketa fisikoa egiteaz bukatu eta lau bat ordura erabat desagertzen baita giharretatik. Ez dagoe-nak ezin sortu ba oinazik, gehienbat mina ariketa egin ondoren 24-48 ordura azaltzen delako.

Agujeten benetako arrazoia mikroskopikoki bakarrik ikus daitezkeen giharretako mikrolesioak dira. Lesio hauetan inflamazio prozesu bat ematen da eta hain zuzen ere, inflamazio hau da mina sortarazten duena. Ariketa fisikoa egiten ohituta ez dauden giharretan gehiegizko tentsioa jartzeagatik sortzen dira lesio hauek. Esate baterako, inongo kirolarik egiten ez duen pertsona batek estiramentuak soilik egingo balitu ere, hurrengo egunean erabat gogortuta egongo litzateke agujeten ondorioz. Honekin ere azido laktikoaren teoria erabat deuseztatzen dugu, azidoa ariketa fisikoa egiterakoan energia lortzeko era anaerobikoan hasten garenean sortzen baita; hau da, oxigenoaren presentziarik gabe.

Agujetak ekiditeko era kirola progresiboki egitea da; eta batzutan, hala eta guztiz ere, sortu egingo dira. Hor daudelarik bost eta zortzi egun bitartean iraungo dute. Hala ere, haien efektu desatseginak hobeto eraman eta gutxiagotzeko honako hauek izango dituzu lagungarri:

- Agujetak sortu dituen ariketa edo kirola berriz egiterakoan intentsitate berdina edo bajuagoa erabili. Sekula ez handiagoa.
- Mina duzun lekuan lehenengo 24 ordutan izotza jarri. Hurrengo orduetan berriz beroak lagunduko zaitu.
- Anti-inflamatorio bat iza-ki, aspirina baliogarria suerta dakizuke.
- Minaren sentsazioa bare-tzeko masajea ere lagungarri gertatuko da.

Betidanik ezagutzen ditugun mina ekiditeko hainbat era xelebrek berriz, honen aurka ez dute inongo eraginik. Adibidez, bikarbonatoa edo ura azukrearekin hartzeak ariketa egitean galdutako gatz mineral eta energia erre-tsebak berreskuratzen soilik lagunduko digu.

Hain "maitagarriak" zaizkigun agujeta hauek ahal den neurrian ekiditzeko beraz, ariketa pixkanaka egin besterik ez dugu. Gure ondorio nagusiak hori behar luke; kirola eginez ongi sentitzea da garrantzitsua.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



PPko zinegotziak albiste

Ordizia eta Beasaingo PPko zinegotziak albiste izan dira egunotan.

● Maria Pilar Manso

Ordiziakoaren kasuan, Maria Pilar Mansok, bere alderdiarekin hainbat puntutan bat ez datorrela eta, PP utzi eta talde mistoan sartu da. Zazpi puntuko agiria kaleratu zuen Mansok, aldagatzen zergatiak argitzeko.

Zinegotzi izateko aurkeztu zenean, "Ordiziako biztanle guztien onerako, inongo bereizketarik gabe, lan egiteko asmoarekin egin" omen zuen. Bere alderdiko siglak zirela eta behar bezala onartua izango zela jakin bazekien ere, "lanerako gogoak nire afiliazioa ahaztaraziko" zuela ziur zegoen. Baina "nire ilusioa desagertu egin zen PPko zuzendari-tzaren agindu zorrotzak jaso nituenean". Gipuzkoan, talde abertzaleetatik eta EHTik aurkezten ziren proiektu guztiei sistematikoki oposizioa azaltzeko agindu omen zioten.

Udaletxean presoen alde aurkeztutako mozio edo akordioei ezezko botoa emateko agindu omen zioten. "Ideal batengatik beraien bizitza sakrifikatu duten pertsonak, inork ezin dezake adierazi legitimoa ez denik. Borroka erarekin ados egon gaitezke edo ez, baina ezin diegu ukatu beste errespetu bat bere sakrifizioagatik", adierazi du Mansok presoei buruz.

Azken hilabeteetan PPko buruzagiek gaur egungo elkarbizitarako normalizazio prozesuari buruz duten jarrerari buruz hausnartzeko denbora izan omen du eta "ez dut ulertzen Euskal Herriko biztanleen % 20 ordezkatzeko duen talde bati sistematikoki biolentzia gaitzesteko eskatzea, PPTik hainbat ekintza gaitzesten ez direnean eta (...) gainera zenbait kasutan torturengatik zigortutako guardia zibilak sari-tuak izaten dira indultoei eta igoerekin".

Ez du zinegotzi kargua utziko Maria Pilar Mansok, PPTik bera bezala "manipulatua" izango den beste norbait ez bidaltzeko. "Beraz Talde Mixtura pasatzeko gogoaz azaltzen dut, Euskal Herriarentzat bakea lortzeko lana egin ahal izateko".

● Julio Herreros

Bestalde, Julio Herreros, Beasaingo PPko zinegotzia, mehatxatuz azaldu diren kartelak salatu ditu Beasaingo Udalak. PSE-EEK aurkeztu zuen mozioa, Julio Herrerosengana elkartasuna adieraziz eta biolentzia salatuz. EAJ-EA, PSE-EE eta PPko zinegotzien aldeko 12 boto eta hiru kontrako, EHrenak, izan ziren bozketan.



Orkliren instalazio industrialaren inaugurazioa, 25. urteurrenean

Urriaren 8an inauguratu zuten Orkli kooperatibaren instalazio industrial berria. Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Josu Jon Imaz Industria Kontseilaria eta Ordizia eta Aramako alkateak, Alejandra Iturrioz eta M. Jose Olazabal, izan ziren besteak beste, inaugurazio ekitaldian. Kooperatibak 25 urte bete dituenetik etorri da inaugurazioa.

10.000 m² ditu instalazio berriak eta ur berogailuentzako ingurugiro tenperaturaren kontrol balbulak egingo dituzte bertan. MCC Taldeko partaide da Orkli eta mundu mailan punta-puntan dabil segurtasun termoelektriko sistemen merkaturatzen.

Goierrri eskualdeko hainbat gurasok sortu zuten Orkli, batez ere, emakumezkoak lan munduan sartzeko helburuarekin. Gaur egun 460 langile dauzka Orklik eta 1998 eta 1999 urtean 11.000 milioi pezetetako izan zen fakturazioa. 4.681 milioi pezetetako inbertsioa egin dute.

Agauntza errekan arrainak hilik

Irailaren 28an ehundaka arrain agertu ziren hilik Agauntza errekan, Beasainen. Gipuzkoako Foru Aldundia gertaerak aztertzen ari da eta itxura denez, Lazkaon, kolektore orokorrean izandako isurketek eragin

zuten kutsadura. Kolektore horretan biltzen dira Lazkaoko ur zikinak, eta baita hainbat enpresa eta Senpere merkatal zentruak ere. Toxikotasun hori zein enpresek sortu duen aztertzen ari da Diputazioa. Hildako arrainak, barboak eta loinak ziren.

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
 ☎ 943 88 87 62 BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA


INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00
 Altzagako Udaletxean



Zumalakarregiren biografia, Mikel Alberdiren eskutik



Tomas Zumalakarregi gerrillari eta jeneral karlista leien-dazko pertsonaia bihurtu da Euskal Herrian. Hala ere, benetan nor eta zer izan zen ez

da batere ezaguna, eta, harrigarria bada ere, hauxe du euskarazko lehenengo biografia, Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoko artxibo eta liburutegiko arduradun Mikel Alberdik idatzia.

Urriaren 8an egin zen Donostian liburuaren aurkezpena. Hurrengo aleetan izango dugu berri zehatzagoa.

Euskadiko behi onena

Lazkaomendiko Iztueta baserriko behi bat izendatu dute 'Euskadiko behi onena'. Urtean 10.000 litro esne ematen ditu; zehatzago esateko, urteko 305 eguntan. Frisona arrazako behia da. Azkeneko urteetan Estatu Espainiarreko hamar onenen artean egon da.

Goierriko antzerki amateurraren zirkuitua

Goierriko antzerki amateurraren II. zirkuitua abian jarriko da urriaren 22an. Ordiziako Urrup eta Beasaingo Errail antzerki taldeek, urtean zehar egindako lana, Goierriko eszenatoki ezberdinetan taularatuko dute. Beasaingo Errail antzerki taldeak 'Sukaldea' lana prestatu du eta Ordiziako Urrup-ek 'Autoa'.

Urriaren 22an, 20:30ean, Ordiziako Herri antzokian

beasaindarren txanda izango da. 29an, berriz, ordiziarrek Beasaingo Usurbe antzokian izango dira, 20:30ean.

Gipuzkoako herri arteko bertso txapelketa

Itzulerako bertso-saioa jokatuta, Goierri-Ordizia taldeak aurrera egingo du, Goierri-Zaldibia taldeari irabazita. Itzulerako saioa Goierri-Zaldibiak irabazi bazuen ere, bi saioetako puntuak zenbatuz, Goierri-Ordizia taldeak egin du aurrera.

Informazio hau idazterakoan, Goierri-Beasain taldearen itzulerako saioa jokatzeke zegoen. Hurrengoan izango dugu informazio gehiago.

Izaro Iraeta

Izaro Iraeta zaldibitarra, ETB-1eko 'Ikusgela' saioa aurkezlea izango da denboraldi berrian ere.

Txiki-Txoko eta Musika Klasikoaren giltzak irratsaioak Segura Irratian

Beasaingo Ikastolako ikasleen eskutik, Txiki-Txoko eta Musika Klasikoaren giltzak saioak entzun daitezke aurtengo ikasturtean ere, Segura Irratian.

Txiki-Txoko larunbatero anteneratuko da, urriaren 16tik aurrera, 10:00etatik 11:00etara. Lehenengo Hez-kuntzako 5. eta 6. mailakoak eta DBH 1.eko ikasleak ari-zen dira. Umeei zuzendutako ipuinak, txisteak, abestiak, bertsoak, euskal musika, elkarrizketak... izango dira.

Musika klasikoaren giltzak irratsaioa, berriz, astelehen arratsaldetan entzuteko aukera izango da, 14:30etik aurrera. Urriaren 19an hasiko da aldi berria DBHko 1, 2. eta 3. mailako ikasleen eskutik. Musikaren historian zenbait tresnek izan duten eboluzioaz, zineaz, pinturaz, literaturaz, eta abarrez arituko dira musika klasikoaz ari diren denboran.

Joga ikastaroak Ordizian

Ayoc-Yoke, Joga Klasi-koko elkarteak antolatutarik, joga ikastaroak izango dira urrian.


Urriaren 18 eta 19an, Ayur joga izango da, 19:00etatik 21:00etara, Ordiziako Barrenan. Prezioa: 5.000 pezeta.

Urriaren 20an, joga Su-trak ikastaroa izango da, Barrenan, 19:00etatik

21:00etara. Prezioa: 1.000 pezeta.

Urriaren 29, 30 eta 31n, berriz, seminarioa izango dute, Harold Sequeira, Bombayko joga institutuko irakasleak zuzenduta. Arabako Angoston izango da seminarioa eta 15.000 pezeta (alojamendua eta otorduak barne) kostatuko da.

Informazio gehiagorako telefonoa: 943-889770.



Sagardoa

Urriarekin batera sagardogileak hasi dira sagarrak inguratu eta sagardoa egiten. Urtarrilean edateko prest izango da mama goxoa.

KAMARA AURREAN AZALTZEN DIRENAK EZAGUNAK BADIIRA ERE, EZ DIRA BAKARRAK:

Goenkaleko beste goierritarrak

Goenkalek 1.000 atala bete berria du. Seigarren denboraldia hasi du irailean eta jende asko lan handia egin behar izan du eta egiten ari da astelehenetik ostiralera teleaioa anteneratzeko. Pantailan azaltzen direnak, aktoreak, dira guretzat ezagunak, baina kamara atzean, lantalde handia dago. Goierritarrak ere badaude tarteetan eta Euskal Herriko kalerik famatueneko, Goenkaleko, goierritarrak ezagutu nahi izan ditugu.

Mikel Garmendia 'Joxe Mari Lasa', Jose Ramon Soroiz 'Martin Lasa', Ane Aseginolaza 'Edurne', Asier Zinkunegi 'Iker', Lourdes Intxausti 'Lola', Loinaz Jauregi 'abokatua', Xabier Agirre 'Xanti', Kiko Jauregi 'Joseba', Gorka Igartua 'Guti'... Goenkale telesailaiko aurpegi ezagunak dira hauek. Azkeneko goierritar "fitxajea", Gorka Igartua 'Guti' da, Ezkio-Itsasokoa. Batzuek lehena eta beste batzuek oraina. Mikel Garmendiaren kasuan, biak batera.

Ikusentzuleontzako, Goenkale, pertsonaia hauek egiten dute, baina Goenkale



Boga Boga tabernan ageri direnak ezkerretik eskubira: Jexux Etxeberria, Itziar Zeberio, Alex Ezkurdia, Iñaki Imaz eta Antton Altuna

askoz ere gehiago da. Aktoreez gain hainbat figurista goierritar ere azaldu izan da teleailean. Kameraren atzealdean ari den lantalde handian ere, aktoreetan bezala, goierritarrak ugari dira. Txanponaren alde izkutu hori agerian jarri nahirik hurbildu ginen Miramonera eta honako hauek aurkitu genituen bertan:

Alex Ezkurdia, legorretarra, dugu Goenkaleren zuzendaria, iazko denboraldiaren bukaeratik. Aurretik errealizadorea eta bere laguntzailea izan zen. Ia hasieratik dabil lanean Alex Goenkalen. Zuzendari lanean berria da eta arlo ezberdin guztiak kontrolatu behar ditu. Aktoreen lana, gidoiak, teknika lanak...

Itziar Zeberio, ordiziarra, produktorea da azken

toan grabaketak egiten ari direnean. Hasiera-hasieratik dabil Goenkalen lanean.


Antton Altuna, legorretarra, errealizazio laguntzailea da eta hiru urte darmaizki lanean.

Jexux Etxeberria, ataundarra, hasiera-hasieratik dabil Goenkalen, lan batean edo bestean. Gaur egun kamarak kontrolatzea da bere lana, kolorea zaindu... Operadore gisa ere aritua da.

Era oso laburrean horixe da goierritarrek egiten dutena. Lan hau nola egiten duten eta Arraldeko dekoratuetako zirrikituak pazientziarekin erakutsi zikiguten. Bertan ikusi ahal izan genuen bezala, pazientzia handiko lanak dira guztiak ere, hainbat eta hainbat errikapen eginez.



Iñaki Imaz beasaindarra Goenkaleko aktoreei aginduak ematen.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Gipuzkoako artisauen II. azoka Ordizian, urriaren 16 eta 17an

Gabiltza, Gipuzkoako artisauen elkarteak antolatu du aurtien bigarren aldiz, Artisaualdia 99, Ordizian. Asteazken zehar hainbat tailer eta hitzaldi izan bada ere, azoka, asteburua izango da, Majori Kiroldegian.

50 artisauek erakutsiko dute beraien lana Ordizian, asteburu honetan. Gehienak gipuzkoarrak dira, baina Nafarroako 10 artisauek ere gonbidatu dituzte aurtien. Zeramika, beira, egurra, saskigintza, pelotagileak, larruaren tratamendua, lora lehorrak eta prentsatuak, enkuadernazioa, bitxigintza... denetarik izango da artisauen erakusleiho garraztsua izango den Ordizia. Larunbat eta igandeko ordutegiak dituzte jarraian: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era. Inaugurazio ofiziala eguerdiko 12etan egingo da. Sarrera 150 pezeta kostatuko da.

Artisauak lanean ikusteko aukera, haur eta helduentzako tailerretan parte hartzeko parada, zozketak, ondoen atondutako standentzat sariak, musika animazioa... denetarik ikusteko aukera izango bi egunetan



Haur eta helduentzako tailerrak antolatu dira iaz bezala. Larunbatean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30etara izango dira; igandean, berriz, 11:00etatik 13:00etara.

Ordizian.

Dena den, hiru berrikuntza nagusirekin dator aurtengo ekitaldia: euroaren erabilera, egurrari buruzko monografikoa eta hainbat arteren erakustaldia.

Euroa

“Erosketak” euroarekin egin ahal izango dira. Simulazioa izango da. Euro bereziak prestatu dituzte azokarako: txanponaren alde batean benetako Euroaren ezaugarriak azalduko dira eta bestean, artisaualdiaren ezaugarriak. 2002. urtean derrigorrean erabili beharko dugun txanpon berrira ohitzen joateko aukera emango dute artisauek. Euroaren standean eskuratu ahal izango dira euroak eta promozio gisa prestatuko materiala

“erosi” ahal izango da. Erosleek eta saltzaileek burua nekatu beharko dute. Neke horren truke, sari bereziak egongo dira. Goiturrek emango du 25.000 pezetan baloratutako saria: nekazaturismoko etxetan asteburuak.

Euroaren inguruan egon daitezkeen kezak, zalan-tzak eta beldurak argitzeko adituak egongo dira.

Egurraren monografikoa

Hurrengo bi orrietan duzuen erreportaieko protagonistek, Amalurkoek, egurraren monografikoa prestatu dute. Ezaugarriak, erabilerak eta artisauek teknika ezberdinak erakutsiko dituzte. Xehetasun gehiago dituzte 15. orrian.

Erakustaldiak

Euskal Herrian tradizio handiko bi lanbide artisauek berezi ikusgai izango dira. Diniosio Usarragak arrantzako sareak egingo ditu larunbatean eta igandean; Daniel Peralek musika instrumentu zaharrak egingo ditu.

Enpresantzako opariak

Beraien langileei opariak egiteko ohitura daukaten enpresei begira, beste stand bat prestatuko da. Opari ezberdinak egongo dira ikusgai. 200 enpresa inguru gonbidatu dituzte artisauek Ordiziara.

Zozketak, sariak...

Sariak artisauentzat eta ikusleentzat izango dira. Ondoan dekoratutako standentzat sariak izango dira. Bisitarien artean, sarreretan izango diren zenbakiekin jokatzeko, 5.000 pezetako baleak ere zozketatuko dira, azokan bertan gastatzeko.

Gutxienez, 1.500 pezetako erosketaren bat egiten duenari, sarrerako, 150 pezetako, beharpena egingo zaio.

Antolatzaile nagusia Gabiltza elkarte baldin bada ere, Ordiziako Udaren, Gipuzkoako Foru Aldundiren, Euskadiko Kutxaren, Ordiziako Maxi Eroskiren eta Goiturren laguntza jasoko du.

JOAKIN ZUBELDIA
PINTURA-LANAK



943 18 02 46 **ATAUN**



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI

LURDES ULAZIA ETA ANA SANTIAGO 'BARRETXEKO NESKAK':

Amalur, egur artisautza tailerra Gabirian

Ana Santiagok eta Lurdes Ulaziak osatzen dute Amalur enpresa. Egur artisautza tailerra da. Egurra edo zura landuz, altzariak eta zurezko piezak egiten dituzte. Sukaldeko, logeletako eta edozein eratako altzariak egiten dituzte. Diseinua ere beraiek ere egiten dute. Barnizak eta argizariak ere bai; baina azken bi produktu hauek, ez toxikoak egiten dituzte. Lurdes Ulaziak kontatu dizkigu xehetasunak.

Duela zortzi urte jarri zuten martxan bi emakumeek Gabiriako Barretxe base-rrian Amalur egur artisautza tailerra. Baserrian bizi nahian eta bertan tailertxo zegoela aprobetxatuz etorri ziren Ana Santiago valladolitarra eta Lurdes Ulaizia zarauztarra Goierri aldera.

Egurraren ia prozesu guztia egiten dute bertan. Egurra kanpotik ekartzen



dute, baina gainerako guztia Barretxe tailerlean egiten dute.

Barniz eta argizari ez toxikoak

Diseinuak beraiek egiten dituzte. Altzari handi edo txikiak. Kajak, bandejak, jostailuak, hautsontziak... teknika eta egur ezberdinetakoak. Margotzea ere beraien lana da. Barnizak eta argizariak bertan egiten dituzte; barniz eta argizari ez toxikoak. "Barniz toxikoa zela eta, kezka sortu eta probatzen hasi ginen. Barniz ez toxikoa bertan egiten dugu, guretzat eta kanpora

ere saltzen dugu. Lehengoek egiten zuten bezala egiten dugu: linaza olio erabiliz, erretxina nahastu gogortasuna emateko, eta usain gabeko disolbentea gehitzen diogu. Barniza ematerakoan ere errazago ematen da, edozein lekutan eman liteke. Jendea sentzibilizatuagoa dago ekologia dela eta ez dela, eta horrelako barniza interesatzen zaio jendeari". Argizariarekin ere gauza bera egiten dute: erle-argizariari agurrasa nahastu beharrean, usain gaibeko disolbentea nahasten diote.

Era guztietako altzariak

egiten dituzte; teknika, material, egur... ezberdinetakoak. Enkarguzkoak direnak, normalean handiak izaten dira, neurrira eginda.

Altzari arruntagoak egiten hasi ziren. Ikastaro ezberdinak eginez, piskanaka-piskanaka beraien gama zabaltzen joan dira. "Mugagabea da egurraren mundu hau. Tailarekin batera, eskultura egiteko grina sortu zitzaidan... diseinatze gogo... sortzen da. Hasieran ez genuen batere tailatzen... Hasiera batean pinu gehiago erabiltzen genuen... Denborarekin egur mota ezberdinak ezagutzeko aukera izan dugu. Orain gehienbat haritza erabiltzen dugu. Etengabe ari gara eboluzionatzen", diote. Azkenaldian modan dagoen joera tailarena baldin bada ere, Amalurkoak ez ditu tailak betetzen. "Horretan ere gustok daude".

Pieza bakarra

Banan-banan egiten dituzte piezak. Bakarrak izaten dira. "Dendetan gauzak ber-

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



**Barandiaran
ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7 BEASAIN

dintsuegi daudelako-
edo, gauza berezi bila
etortzen dira eta hori
baloratzen da. Badakite
horrelako gauzarik ez
dutela inon eta inoiz iku-
siko. Banan-banan egi-
ten ditugu altzariak. Era
honetan gauzak gustora-
go egiten dira. Jende as-
ko etortzen da enkargue-
kin. Zerbait berezia, de-
taileren bat behar dute-
nean, etortzen dira batez
ere". Hasieran, eginda-
ko pieza bakoitza bitxi
berezi bat izaten zen.
Saltzeak ere pena ema-
ten omen zien askotan.

Artisautza indarra
hartzen ari dela, modan
dagoela dirudi. Moda
horrek noiz arte iraungo
ote duen da, ordea kon-
tua Lurdes Ulaziak adie-
razi digunez. Dena den,
jendeak artisauki egin-
dako lana gehiago balora-
tzen hasi dela uste du. "Ha-
la ere jende askok oraindik
ere pentsatzen du, artisau
gauza bat delako merkea-
goa izan behar duela. Le-
hen pentsatzen genuen es-
kuz egindako gauzak oso
merkeak izan behar zirela.
Idea hori aldatzen ari da,



Ezkerrean Lurdes Ulazia eta eskubian Ana Santiago.



Egurrari buruzko monografikoa

Amalur enpresak prestatu du Ordiziako artisauen azokako egurrari bu-
ruzko stand berezia. Zuhaitza botatzen denetik bere erabilerara bitarte-
an eta egurretik altzarira dauden prozesuak erakusten saiatuko dira.

Stanean mota ezberdinetako zuhaitzen txirbilak izango dira. Hos-
toak ere bai. Bakoitzak bere txarteltxoia izango du, zuhaitzaren izenak
eta izen botanikoak azalduaz.

Enbor ezberdinak ikusteko aukera ere izango da. Erditik ebaki eta
Lurdes Ulaziak eta Ana Santiagok bisitariei edozein kezka edo zalan-
tza argituko dizkie.

jendea mentalizatzen ari
da. Eskuz egindakoak bere
lanak behar ditu eta horrek
ere balioa dauka. Gure bo-
rrokak horretan izaten ditu-
gu".

Erakusleihu onak

Azokak erakusleihu edo es-
kaparate onak izaten dira
artisauentzat. Saltzeko, egi-

ten dena erakusteko eta eza-
gutzeko... "Guk azoketan ez
dugu gehiegi saltzen baina
eskaparate bezala garran-
tzitsua izaten da guretzat".

Ordiziako azoka, Arti-
sauldia, bigarren urtez os-
patuko da aurten. Iazkoak
izugarritzko arrakasta izan
zuen eta dena oso ondo ate-
ra omen zen. Erakusleihu

ona eta erreferentziaz-
koa da Ordiziakoa. Bi-
garren aldi honetan, de-
na den, ardura gehiago
omen daukate.

Egurraren inguruko
monografikoa prestatu
dute Anak eta Lurdesek
Ordiziako azokarako.
Egurraren ezaugarriak
eta xehetasunak azaldu-
ko dituzte.

Gabiltza, Gipuzkoako
artisauen elkarteak, an-
tolatzen du Artisau-
aldia. 1996an sortu zen
eta Amalurrekoak ha-
siera-hasieratik daude
elkartean sartuta. Elkar-
teak zein helburu di-
tuen galdetu diegu:
"Orain dela urte ba-
tzuk artisau munduan
ibiltzen jendea nahikoa
zaharra zen, lan mun-
duti piska bat aterata,

galtzear zeuden teknikak
erakusteko ahaleginarekin,
hobby bezala. Jende gaztea,
artisautza lanbide bezala
hartu nahi genuenak, elkar-
tu egin ginen. Laguntzak,
lan aholkularitza kontuak...
zalantzak, esperientziak,
kekak... trukatzeko elkar-
tea da".



ESTETIKA ZENTRUA

☎ 943 88 15 50

Senpere Merkatal Gunea
BEASAIN

TRATAMENDU MEDIKOAK

- Aurpegiko orbanak edo mantxak
- Ezpainetako zimurrak

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

MAKILAJE IRAUNKORREKO TEKNIKO ESPEZIALISTA

- Begiak
- Ezpainak
- Bekainak

MAKILAJE IKASTAROKAK

DEPILAZIOA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN


INIAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



Alpe

MASTER

**Elektragaiak
Sukaldeko altzariak**

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

BEASAIN

Igartzako monumentu multzora bisitak

Asteazkenean ireki zituen Igartzako Turismo Informazioarako Bulegoak ateak, nahi duenak Igartzako Monumentu Multzoa bisitatu eta eza-gutu dezan: Jauregia, Erdi Aroko Zubia, Belengo Andre Mariaren Ermita, Errota, Burdinolaren hondarrak, Dolarea baserria, Errementari eta Gurutzeta bisitatu ahal izango dira gidari baten laguntzarekin. Aukera paregabea beraz, Beasaingo herriaren Erdi Aroko bizimodua ezagutzeko eta Igartzako Jaurerriak Beasaingo historiaren bilakaeran eduki zuen garrantziaz jabetzeko.

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:

17:00etatik-19:00etara
(asteartetan itxita egongo da)

Larunbatetan:

11:00etatik 14:30era
16:00etatik 19:30era

Igandetan:

12:00etatik 14:30era
16:00etatik 19:30era

Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat bestalde, programa didaktiko berezia prestatu du Udaleko Kultura-batzordeak. Hiru eguneko ikastaroa antolatu dute. Lehenengo bi egunetan ordubeteko klase teorikoak, Erdi Aroko bizimodua ikas dezaten, eta hirugarren egunean egingo dute bisita.

San Andres elizan konponketak

Erauskin auzoko San Andres Elizaren teilatua konpontzen hastekoak dira. Teilatua eusten duten egurrezko zutabeak egoera txarrean daude eta hauek aldatuko dituzte.


Liburutegiko berrikuntzak abian

Zerbitzua hobetzeko asmoz, aldaketak egiten hasiak dira dagoeneko Udal Liburutegian. Hantitu egingo dute beharren arabera guñeak sortuaz, eta elkarrengandik bereiziak egongo dira, batetik bestera joateko ate bat zeharkatu beharko delarik. Elkar gutxiago molestatzea da honen helburua.

Sarrera zuzena izango du liburutegiak, Kultur Etxera sartu beharrik ez baita izango.

Sarreraren takilak jarriko dituzte beren gitarra eta guzti, eta lehen ez bezala, ez da ezertxo ere barrura sartzerik egongo. Bestelakotan, umeen gunea, kontsultarako gunea, eta orain, Unibertsitateko ikasleentzat ere izango da beste gune berri bat. Umeentzako leku berria, sartu eta eskubitarra kokatuko da, hemen izango dituzte beraiei zuzenduriko liburu guztiak. Izango dute ordea, liburuak lasai irakurtzeko leku berririk. Aldamenen kokatua zegoen ikastolako hiru gela egokitzeko asmoa baitute. Liburutegian aurkituko dugun hurrengo gunea, kontsultarako izango da. Liburu guztiak hemen kokatuko dira, era honetan, liburutegian zehar, jendea gutxiago ibiliko delarik. Gainera, giltzapean egongo den beste biltegi bat ere izango da, balioko liburuak edo zaharkituak gordetzeko. Hauek kontsultatzeko, liburutegiko arduradunari esan beharko zaio.

Unibertsitateko ikasleentzat egokitu den gela berriak, sarrera berezia izango du, Kul-



tur Etxeko sarrera bera izango baitu, nola-bait ere independente geldituko da, eta bere takila propioa izango du. Ez du liburutegi-koen zaintza izango.

Berrikuntza honek dakarren arazoa, edo lanik handiena behinik behin, zera da, egin behar diren obrez gainera, liburu guztiak kokapena aldatu egin behar dela, eta guztia informatizatuta dagoenez, aldaketa hauek guztiak, ordenadorean banan bana azaldu beharko dira. 20.000 liburu baina gehiago direla kontuan izanik, hortik atera kontuak. Badirudi, "2000 efektua" Beasaingo Liburutegiak ere pairatuko lukeela, eta hori eguneratzeko ere aprobeitxatuko dute bide batez.

Lan asko beraz, denbora gutxian eginge dutena, azaroaren 12rako bukatu nahi baitute. Mesedez zera eskatu dute, lan hauek irauten duten bitartean, liburutegira ahalik eta gutxien joatea. Jendea hara eta hona dabilela lana asko zailtzen baitzaie bertakoei. Ea guztion artean lana errazten diegun !

Lan hauek amaitzen ditzutenean, Aranzadi Elkarteko arkeologo talde batek indusketak hasiko ditu. Abenduaren 1erako dago aurreikusia lanen amaiera.

Zinea euskaraz

Haur hezkuntza, eta lehen eta bigarren hezkuntzako haurrei zuzendurik dago kanpaina hau, eta hilean behin filma bat euskaraz ikusteko aukera izango dute kurtsoan

Aisialdiko begira ikastaroa euskaraz

Urriaren 29rarte dago irekita izena emateko epea. Udaletxeko Euskara-zerbitzuan egin behar da, 943805251 edo 943028063 telefonoetan.

Begirale-ikastaroa egiteko ikastaroa amaitzen den urtean 18 urte bete behar dira. Azaroan hasiko da ikastaroa eta 200 ordukoa izango da. Klaseak asteburuetan, jaiegunetan eta oporraldietan izango dira.

zehar. Lehenengoa datorren ostiralean, hilaren 22-an eskeiniko zaie. "The Borrowers" filma, Usurbe Antzo-

kian, goizeko 9etan.

Nekane Altuna

ZEGAMA

Asemendi baserriaren aldeko bertso-saioa urriaren 23an

Maiatzean erretako Asemendi baserriaren alde bertso jaialdia antolatu du Lanbatzordeak. Urriaren 23an izango da, gaueko 10,30etan, pilotalekuan. Andoni Egaña, Imanol Murua, Sebastian Lizaso, Angel M. Peñagarikano, Joxe Agirre eta J. M. Irazu bertsolariak izango dira. Gaijartzailea Laxaro Azkune izango da.

Lanbatzordeak errifak ere kaleratu dira, Asemendi baserriaren alde dirua lortzeko helburuarekin. Terra-no autoa zozketatuko da.

Bukatzeko, gogoratu, hiru kontu korronte irekita daudela, nahi duenak bere laguntza eman dezan.

Kutxan: 2101 0032 8801 22739022.

BBVn: 0182 0314580201501401.


Euskadiko Kutxan: 3035 0017 17 0170056591.

Orkatz-Txiki

Ikasturte berrian ere, Orkatz-Txiki-k korura sartzeko ateak zabalik dituela gogoratu nahi du eta bide batez, bertan parte hartzeko gonbite adeitsua luzatu zegamarrei nahiz gerturatu nahi duen edonori.

Berau aukera ona da lagunarte atseginean egoteko; Zegamako jendearekin harremanak uztartzeko; abestuz gozatzeko eta entseien bidez lortutako emaitzak, egiten ditugun irteera ugarietako kontzertuetan erakusteko, Euskal herria barruan nola kanpoan.

Koruko abeslari izateko gonbidapen hau beste hainbat ekintzen barnean kokatu behar da, hau da, giro atseginean burutu zen kantufestaren barnean, hilaren 8an, ostiralean, koru txiki-koek, herri eskolan, haurrei egin zieten aurrez aurreko aurkezpen eta inbitazio zuzenaren barnean eta hilaren 15ean, kultur-etxean 19:30ean koru txikiko entseiu txiki bat ikustera egi-



Tartaloetxeko mus txapelketa: Luis Arrieta eta Migel Azkona irabazle

Tartaloetxeko VII. mus txapelketako kanporaketak iraileko azken bi ostiraletan jokatu ondoren, irabazleak Luis Arrieta eta Migel Azkona izan dira, bigarrenak berriz, Urko Gorrotxategi eta Igor Ormazabal. Bi bikoteei eta aurrekanporaketetan parte hartu duten bikote guztiei eskerrak eman nahi dizkie Tartaloetxekoek, eta baita ere sariak eman dituztenei: tabernari, dendari, igeltsero, harakin, arrandegi, okindegi, gozotegi, aroztegi, tabakotegi, elkarteei...

ten den gonbitearen barnean.

Ekintza hauek egin arren, koru txikian sartu nahian dabilenen bat oraindik izena eman gabe balego, koru txikiko nahiz handiko edonori esatea besterik ez dauka.

Nafarroa Oinez

Urriaren 17an, Iruñean egingo den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu da. Udaletxean eman behar da izena.


Eduarne Albizu

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosgi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

ORDIZIA

Bertsotan aurrera



Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketari dagokionez amaitu berri da lehen kanporaketa eta esan Ordiziako taldeak aurrera egitea lortu duela. Zaldibiaren aurka aritzea egokitu zitzaion hasiera honetan eta justu-justu izan bada ere, joan-etorriko saioetan bildutako puntuen batuketak ordiziarrei eman die aurrera joateko txartela.

Argi Berri Elkartean jokatu zen joanekoa eta bertan Ordizia Goierri-Ordizia taldeak 1.050'5 puntu lortu zituen. Goierri-Zaldibiak, aldiz, 1.021'5 puntu. Zaldibiako Gaztelu Elkartean jokatu zen itzulerakoa eta hemen epaimahaikoen puntuak arabera zaldibiarrak izan ziren nagusi, 1.023'5 puntu hauek eta 1.016 puntu azek. Bi kanporaketetako batuketak eginda Ordiziak 2.066'5 eta Zaldibiak 2.045. Ordiziarrek, beraz, aurrera.

Gogoratu Goierri-Ordizia taldea osatzen dutenak hauek direla: bertsolariak Joxe Munduate, Mikel Mendizabal, Igor Eguren, Xabier Narbarte eta Juan Inazio Begiristain, ardurduna Joxe Mari Barandiaran, gaijartzaileak Joxepa Madariaga eta Felix Lardizabal eta epailea Jon Aiestaran. Talde polita, bai!

24 taldek eman zioten hasiera Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa honi eta dagoeneko 12 besterik ez dira geratzen. Hurrengo kanporaketarako zozketa egin beharko da eta Ordizia hor izango da Urnieta-Andoain (Aitor Mendiluz, Jokin Sorozabal...), Azpeitia-Urraki (Imanol Lazkano...), Zarautz-Jai Txiki (Andoni Egaña...) eta abarrekin batera. Finala abenduaren 19an jokatu da Azpeitiako Izarraitz frontoian.

Kirol kontuak

- **Besteek baino beranduxeago izan bada ere errejional mailako futbol taldeak** eman dio hasiera aurtengo denboraldiari. Zuzendaritza Batzorde berria, entrenatzaile berriak... hasi dira euren fruituak ematen. Izan ere hiru jardunaldi jokatu ondoren lehen postuan dira ordiziarrek. Bi neurketa jokatu eta biak irabazi. Emaiz itxaropentsuak benetan dagokion maila eskuratu dezan lehenbailehen. Errejional maila honetan zazpina taldeko 4 multzo daude. Ordizia Intxaurre, Idiazabal, Intxurre, Ostadar, Texas eta Urnietarekin batera dago. Denek denek aurka bitan aritu ondoren erabakiko da hurrengo fasera zein talde pasako diren eta ondoren beste multzo batean aritu beharko dute. Ez da erreza, beraz, guztiok nahi dugun igoera hori lortzea baina osatu den taldea ikusita itxaropena ezin galdu.
- **Ohorezko mailako jubenilak** goi postuetan hasi dira eta bigarren mailako jubenilak euren multzoko liderrak dira. Kadeteak sailkapeneko erdialdean eta bigarren taldea behealdean. **Infantilek** ere ez dute ondo hasi denboraldia eta azken postuetan dabilta. Aipatu genizuen aurreko batean emakumezkoen taldea ere sortu berri dela eta itxuruso dabilta euren erronka berrian. Multzoan esperientzia handiko taldeak badaude ere norgehiagokaren bat aurrera eramatea lortu dute neskek. Lehen urtea izateko erdi mailan ibiltzea ez litzateke txarra izango.
- **Saskibaloi taldeko nagusienek** kaxkar xamar hasi dute denboraldia. Talde gaztea dute eta denborak aurrera egin ahala ziur hobetzen joango direla. Gazteagoak maila hobea ematen ari dira eta sailkapeneko goi postuetan murgilduta dabilta.
- **Hiper Armendariz eskubaloit taldeak** mailaz igotzea lortu zuen iaz. Dena den, multzoen berregituraketa izan dela eta, berriro ere multzo berean aritzea tokatu zaio. Aurrendenboraldi ona egin dute eta ziur lehen partiduetan ere euren maila ona erakutsiko dutela. Bajar garrantzitsu batzuk ere izan dituzte.
- **Rugby taldea** iaz multzo berezitik jaitsi eta lehen mailan arituko da aurre. Zer esanik ez, helburu bezela berriro ere igoera eskuratzeko izango dutela.

Aitor Calvillo

Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

EZKIO-ITSASO

Abiadura mugaketa Santa Luzian

Joan zen irailean, Foru Aldundiko Errepide Sailak, ibilgailuen abiadura orduko 70 kilometrora mugatzen duen seinaleak kokatu zituen Santa Luzia auzoan.

Egunean zehar hamar mila ibilgailutik gora igarotzen diren errepide honetan trafikoaren egoera egunetik egunera larriagotzen ari zen.

Abiadura desegokia medio zela, istripuak geroz eta gehiago eta larriagoak ziren. Hildakoak eta larriki zauritutakoak asko izan dira azken urte hauetan eta ezinbestekoa bihurtu zen erabaki sendoa hartzea.

Bestalde, ezin ahaztu Ezkio-Itsasok azken urte haue-



Santa Luzia auzoan 70 kilometro orduko abiadura muga jarri berri dute.

tan izan duen garapen industrial eta demografikoaren ikurra izan dela Santa Luzia auzoa.

Gaur egun, auzo honen

biztanleen igoera etenezina da eta egoera honi zuzenki loturik auzoko haur kopurua geroz eta handiagoa da. Kontuan izanik kultur etxe-

ra, liburutegira edo kirol gunera hurbiltzeko, haur hauek errepidea gurutzatu behar dutela, arrisku egoera nabarmenki areagotzen da.

Ikusirikoaren ondorioz, Foru Aldundiak abiadura murrizteko harturiko erabakiak, nahiz eta gidari askoren haserre sortu, herritarren bizimodua lasaiagoa bihurtuko du.

Iritziak iritzi, erabaki honek istripuak saihesteko baliobatu guztiok izango gara garaile.


Joseba Etxezarreta

ORMAIZTEGI

Manuel Iglesias garaile Donibane Garazin

Manuel Iglesias eskulturgilea iparraldean ospatu berri den lehiaketan garaile izendatua izan da. Manuel Iglesias Beasainen bizi den arren Ormaiztegiko Telleri baserrian du bere estudioa. Eskulturarako duen zaletasunak eraginda bertan burutzen ditu eskulturen bozetoak, baita obren diseinuak ere. Batzuetan berak diseinatzen dituen obrak bezoren eskaerari jarraituz egiten ditu. Beste batzuetan, berriz, lehiaketa eta arte erakusketetan parte hartzeko asmoz. Ondorioz, bai Euskal Herriko eta baita estatutatu eta atzerriko lehiaketa eta erakusketa ugarietan parteaide izan ohi da Manuel Iglesias.

Azken hilabete hauetan ere bere obrak Holanda eta Nafarroa Behereko Doniba-



ne Garazin ospatu diren arte lehiaketetan ikusgai izan dira. Hain zuzen parteaide izan den bi erakusketa horietan lortu dituen garaipenak azpimarragarriak dira. Holandan Maarheeze herrian ospatu den lehiaketan parte hartu du. Bertan Manuelen

obrak bere arreba M. Puerto margolariarekin batera egon dira ikusgai. Kritiko jakitunek eskulturgilearen obrei aipamen berezia egin diete, aurkezlearen maila goraipatuz.

Donibane Garaziko lehiaketan margolari eta eskulturgileak izan dira parteaide, guztira 45 artisten lanak ikusgai izan direlarik. Eskultura arloan, artista bakoitzak bi obra aurkezteko aukera izan du. Manuelek 'Alga marina' eta 'Pescadera' obrak aurkeztu ditu. Berauetatik epaimahaikideek 'Alga marina' izeneko obra izendatu zuten irabazle. Gainera, azpimarragarria da obra hau bere izan zela Donostiako Paseo Berrirako udalak antolatutako lehiaketan finalisten artean geratu zena.

Odol-emaile elkartekoen loteria

Odol-emaileen elkartetik jakinarazi digutenez, gabonetan ospatzen den estatuko loteria zozketa bereziko odol-emaile elkarteak salgai jarri dituen zenbakiak Euskadiko Kutxako bulegoan eros daitezke.

Bestetik, izan berria duten azken odol ateraketan 46 odol-emailek odola eman zutela adierazi digute. Guztiei eskerrak bidali nahi dizkiete eta baita odol ateraketak aurrera eramaten laguntzen dieten herriko hiru harategiei, Elozegi ardote-giari, herriko udalari, mediku kontsultoriokoei eta Euskadiko Kutxari.

Aitziber Murua

IDIAZABAL

Ikastolaren dirua eta lokala Udalarentzat

Idiazabalgo Ikastolak Zigor auzoan zuen lokala, eta bere garaian herrian ikastola berria eraikitzeke bilduta zituena ia 4 milioi pezeta Udalaretxeari ematea erabaki du.

Ikastola sortzen eta hura bultzatzen aritu ziren herriarrek erabaki zuten Zigor auzoko lokala Udalaren esku uztea, bertan euskara edota euskal kulturarekin loturak izango dituen ekin-tzak egin daitezkeen. Ikastola-ren alde bilduta zegoen diruarekin zer egin erabakitzeke batzorde berezi bat sortu zen orduan, eta batzorde horrek dirua Udala-ren esku uztea erabaki du.

Dirua ematearekin batera, haren erabilerarako bi baldintza ere ezarri dituzte. Lehen diruaren %70 Iparraldeko ikastola bati laguntzeko erabiltzea. Gainontzekoan, %30, Idiazabalgo euskarari edota herriko historiari buruzko ikerketa lanak bultzatzeko erabiltzea.



Bikuña kalea itxita

Bikuña kalean, Gurutze Santuko ermita eta Herri Eskola bitarteko zatian berrikuntza lanak egiten ari da Udala. Kalearen zati hori zabaldu egingo dute, honenbestez Herri Eskolaren ondoko kalearen pare-parean geratuko da berrikuntzako zatia. Bidea asko zabalduko denez, orain arte erabiltzen zen pusketan aparkamentuak egingo dituzte.

Ermitatik Gurutze Berri auzora igotzeko dagoen bide-txurra ere zabaldu egingo dute. Berritzen ari diren bidearen gaineko zelaian hiru etxebizitza (bifamiliarrak) eraikiko dituzte. Terreno horren buelta guztian azera edo espaloi berria egingo dute. 14 milioiko aurrekontua dute urbanizazio lan hauek.

Ikastolako batzordeak udalbatzak irailaren 30eko Udalarri egindako proposamenari baiezkotzea eman zio plenoan.

Euskaltelen antenak

Esku telefonoak edo mobilak herrian erabili ahal izateko hiru telefono dorre jarriko ditu Euskaltelek. Horietako bat, Agerre aldean Telefonikak eta Airtelek orain jarrita duten dorrearen ondoan jartzeko baimena eman dio Udalak Euskalteli. Antza denez dorreko, bi konpainiak ezarri ditzakete beraien tresnak, orain hirugarrenak eskatuta beste dorre bat jarri beharko dute. Euskaltelek Ursuaranen eta Etxegaraten ere jarriko ditu dorre bana, azken leku honetan Airtelek duenaren ondoan jarriko dute antena.

Ahaztutako liburuak

Ekainean Herri Eskolan egin zuten erakusketara eramandako bi liburu jasotzeko daude oraindik ere. Norbaitek falta baditu Kultur Etxean jaso ditzake.

Xabier Urteaga

Olagi Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

ILEAPAINDEGI MISTOA

- ✓ Solarium 4.500 pta. 10 saioko bonoa
- ✓ Depilazioa
- ✓ Kolore eta permanenteak, astelehen, astearte eta asteazkenetan %5eko deskontuaz

Rekartealde, 30 ☎ 943 88 34 86 BEASAIN

Ford

MUJIK

BEASAIN ☎ 943 88 74 00

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

LAZKAO
Lazkaoko I. Gazte eguna urriaren 23an


Urteak ziren, Lazkaoko gazteen artean, ekintza bateratu eta ireki bat antolatzen etzela. Aurtengoan, ordea, adin desberdinetako gazteak elkartu, antolatu eta Gazte Egun bat ospatzea erabaki dute. Horretarako bilera asko eta gazteen konpromezua behar beharrezkoa izan da, baina azkenean lortu da egitarau eder eta bete bat antolatzea. Lazkaoko I. Gazte Eguna, urriaren 23an ospatuko da, eta antolaketa lanak aurreratuta dauden arren, lazkaotar guztien partaidetza eskatzen dute egun hau berezia izan dedin. Ondorengo hau da prestatu duten egitaraua:

11:00etan: Txupinazoa.

11:15ean: - Herri kirolak; koskolak, zaku-karrea, korrika eta txingak.
- Karretila karrera.
- Sokatira.

13:00etan: Pintxoak, gazteek preparatuta eta ondoren gazte poteoa Lazkaoko trikitilari gazteekin.

14:30ean: Gazte bazkaria frontoi zaharrean;
Ondoren, Goierriko bertsolari gazteen jardunaldia, abesti zaharren kantaldia eta irrintzi lehiaketa.

17:30ean: Asto lasterketa.

18:30: Poteoa herri guztian zehar, Antzar-Gazteak txarangarekin.

20:00etan: 'Fist Fucking'


Kultur Etxearen inaugurazioa

Sanmiel egunean inauguratu zen Lazkaoko Kultur Etxe berria, Luis Mari Bandres diputatuaren presentziarekin. Erakusketa gela, liburutegi, lau gela balioanizdunak eta eskulan gela bat ditu Kultur Etxe berriak. Baliabide hauen erabilera, gainera, lazkaotar guztiei irekita dago, nahikoa duzue udaletxean eskaera bat egitea. Zuen esku dago, hein haundi batean bederen, Kultur Etxearen baliogarritasuna, beraz badakizue non daukazuen zuen ekintzak egiteko aukera bikaina.

eta 'Araujo y los mecanicos' taldeekin kontzertua.

22:30ean: 'Drindots' taldearen emanaldia, goizalderarte.

Saskibaloi taldea berriro jokoan

Laugarren urtez jarraian Lazkaoko saskibaloi taldea martxan daukagu. Ilusio berriztatuz eta inoiz baino lazkaotar gehiagoz osatuta datorkigu, gainera, aurtengoan taldea. Lan zaila izan dute ordea, taldea osatzen, eta honen arrazoiak sinpleak da, Ordiziak bi talde atera ditu eta azken momentuan, Lazkaon zeuden ordiziarrek bere herrian jokatzea erabaki dute. Horren ondorioz, aurtengoan, maila bajuxeagoko taldea ote duten susmoa daukate eta maila mantentetzen nahiko lan izango omen da. Egoera honek badiu bere alde onak, halere, taldean gelditu direnak eta hasi berri diren gazteak ilusio gehiagoz ekingo dutelakoan gaude.

Hauek dira taldeko partaideak, Pablo Anton, Xabier Arrondo, Aitzol Aldasoro, Ander Berasategi, Iker Agirre, Xanet Barreras, Unai Alonso, Aitor Romero eta Roberto Fernandez lazkaotarrak eta Aner Elortza idiazabaldarra.

Gazte mailako taldearen eta talde honen entrenamenduak, Iñaki Belamendia eta Juanjo Martinez de Rituertoren esku geldituko dira. Gazte mailako taldeak aurtengoan iazko talde bera mantentzen dute eta beraz maila ona emateko aukeran ditugu herriko gazteak. Hauek dira taldeko kideak: Ruben, Alex, Joxi, Diego, Gaizka, Sebas, Beñat, Erkaitz eta Urko. Zorri onena opa diegu denei.

Kultur eskeintza zabala

Urriaren 15ean, Itziar Zubizarretak, ipuin bat kontatuko die 5-7 urteko haurrei Udalliburutegian. Ipuin kontaketak arratsaldeko 4,30etan izango da.

Urriaren 16an, Goierriko Euskal Eskolak antolatuta eta 200 pezetaren truke, Goierri Ezagutuz txangoa egingo da Goierriin barrena. Goizeko 9etan Lazkaotik abiatuz, Beasaingo zabortegei kontrolatua, Legazpiko ontzien sailkapen planta eta Zumalakarregi museoa ikusteko aukera izango da besteak beste.

Urriaren 20an, Donato Goienetxe eta Edurne Iturbek, perkusio eta trikitixa emanaldia eskeiniko dute gaueko 9etan Maizpiden.

Urriaren 18tik 21era, pandero ikastaroa egingo da Maizpide Esukaltegian, arratsaldeko 3etatik 4etara edo 7,30etatik 8,30etara, eta hau dena 500 pezeta soilen truke. Ikastaro hau ere, Goierriko Euskal Eskolak antolatzen du.

Azkenik, **urriaren 18tik 29ra,** 'Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixken herbarioa' erakusketa burutuko da Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

Ehize postuak

Urtero bezala, hasiak dira Lazkaomendiko ehize postuen zozketak. Egunero izango dira, 20:30ean, Lazkaomendiko eskoletan. Zozketa aurretik izena eman beharra dago.


Kronista berria

Urriaren 29tik aurrera Elordi Garcia izango da GOIERRITARRAn herriko berri emango digun kronista. Berri zerbaiten berri jakinarazteko 943 88 52 71 telefonora deitzea besterik ez duzue. Ongi etorri, beraz, Elordi.

Bide batez, agur eta eskerrik asko azken 3 urteetan Lazkaoko berriak Goierriaratu dituen Urko Irastortzari.

MUTILOA

Astoak ugaritzen herrian



Egunetik egunera gero eta asto gutxiago dagoen eta animalia honen babeserako elkarteak sortzen ari diren garai hauetan, Atiber baserrian 5 asto jarri dituzte. Ohitu gabe geunden herrian honelako asto koadrila ikus-

ten eta egia esan irudi berezia eskaintzen dute. Astoen jabeak adierazi digunez, ekimena ez da horretan geldituko eta asto gehiago jartzeko asmoa ere ba omen du. Ea beste batzuk ere

bide hau hartzen dugun eta horrela hainbat baserrietako lanetan laguntzaile izan den animalia hau ez da berehalakoan galduko.

Sasietaren oharra

Sasietatik jakinarazi nahi

da, urteko azken 3 hilabeteotan, etxean enbarazoan dituzuen traste zaharrak, nahiz tresna elektrikoak biltzeko egunak honako hauek izango direla: urriaren 13a, azaroaren 10a eta abenduaren 9a.

Etxean honelakorik baduzue eta botatzeko asmoa baduzue komeni da aldeztu aurretik 943161590 telefono zenbakira deitzea, trasteak zein tokitan utziko dituzuen esateko.

Etxe erre eskean

Urriaren 2an, larunbatean, talde bat etxez etxe ibili zen

maiatzean Zegaman errezan Asemendi baserriko familiari laguntzeko asmoz. Bertan bildutako diru kopurua 188.500 pezetakoa izan zen. Lerro hauek aprobetxatuz ekimen honetarako sortutako batzordearen beta bereziki familiaren esker ona adierazi behar dizuet guztioi.

Ardi jana ostatuan

Urriaren 15ean, ostiralean, herrian urtero egin ohi den ardi jana izango da herriko ostatuan.

Iñaki Ugalde

ATAUN

Bertso festa 99

Larunbat honetan ospatuko da bigarren urtez bertso eta kantu afaria. Lehendabizikotz iaz antolatu zen ekimenean ospatzen den Otso-Festaren programaren barruan. Baina aurten, hauteskundeak medio, hilabete batzuek atzeratu eta azkenik urriaren 16an, iluntzeko 8,30etan emango zaio hasiera Bittorrenen bertso festari. Joatera animatzen zarenok bat-bateko bertsoak, bertso eta koplak zaharrak, bertso jarriak eta kanta herrikoiak entzuteko aukera paregabea izango duzue, ederki afaltzeaz gain. Guztia 2.500 pezetaren ordainetan.

Baina bertso afari honek berezitasunik badu, parte-hartzaileak herritarrak izatearena da inondik ere. Horrela, bat-bateko bertsotan Juan Inazio Begiristain eta Joxe Munduate bertsolari beteranoez gain, Aitzol Munduate, Oier Zurutuza,

Iban Urdangarin eta Haitz Aierbe gazteak arituko dira. Bertso zaharrez goatzeko aukera berriz, Nikolas Goikoetxea eta Dionisio Etxeberriak, "Mutil koxkor bat", Maitane Aizpurua eta Jexux Munduatek, "Anttoni, Anttoni", Dionisio Etxeberriak (Xenpelar) eta Joxerramun Munduatek (Musarro), "Aizak hi, mutil mainontzi", Beñat Munduatek, "Nere sentimentua" eta azkenik Joxe Arrondok, "Ataunen kantatutako bertsoak", eskainiko dute. Bertso jarrietan Martin Aramendi eta Koldo Aldabek jasoko dute testigua. Bestalde, Itxaro Barandiaran, flauta, eta Olatz eta Mikel Barandiaran anai-arrebek, gitarra doinuez lagundurik, "Agure zaharra", "Herribera" eta "Adios maitia, adios lagunak" kanta ezagunak abestuko dituzte. Azkenik, Joxe Bikuña koplariak Santa Agedaren koplak kantatuko ditu.

Marronen 'Ene erraietara' diaporama Donostian

Joxe Ramon Agirre "Marron" mendizale eta argazkilariak, Pako Aristi idazle urrestillarra lagun zuela, bere azken diaporama aurkeztu zuen Donostiako Koldo Mitxelena kultur-gunean joan den irailaren 29an. Izenburuak berak adierazten duenez, egileak bere barrenean egin duen bidaiaren berri ematen du bertan. Marronek aurkezpenean adierazi zuenez, Nepalén "neure haurtzaroa aurkitu dudán sentimendua izan ohi dut, neuk baserri edo artzaintza giroan bizi izan nuen haurtzaroarekin topo egin dudán irudipena. Horregatik beharbada, leku horietan, Indian eta Nepalén, etxean sentitu naiz". Barne bidaiak horren adierazle dugu Euskal Herriko irudiekin hasi eta, inolako etenik gabe, Nepalgo irudietara pasatzen den 35 minutuko diaporama hau. Marronek herrialde horretara eginiko hainbat bidaietan ateratako diapositibak ikusgarriak bilduma honi, Pako Aristik jarri dio testua eta narratzaile batek ahotsa. Gainera, Mikel Laboaren "Gernika" eta nepaldar musikari baten doinuek osatzen dute diaporama.

Larunbat gaua giro jatorrean pasatzeko aukera ezin hobea beraz, eskaintzen diguten hau.

Labur-labur

Azken bi asteotan hiru heriotzen berri izan dugu herrian. Arin-Eneako Eugenia Imaz Oiarbide, 90 urte; Ar-

beldi Zaharreko Joxe Arratibel, 74 urte; eta Sariarteko Juan Agirre Imaz, 76 urte. Doluminak senitartekoei eta bereziki laguna dudán Ane-

Agurtzane Bikuña

ZALDIBIA

Ardiki eguneko prestaketak



Santa Fe jaiak pasatu berriak dira eta oraindik ere ajea izango bada ere, beste festa egun baterako prestakuntzetan ari da Udala. Urriaren 31n izango da aurtengo Ardiki eguna. Egitaraua prest dago dagoeneko eta lehiaketetan parte hartzeko oinarriak ere kaleratu dira.

● Zaldibiko mondejuaren VI. lehiaketa:

Parte hartzea irekia izango da. Mondeju zuria egiten dakien edonork har dezake parte. Urriaren 28a baino lehen eman behar da izena, 943-160338 telefonora deituz, 12:30etik 19:30era.

Partehartzaile bakoitzak 5 kana ekarri beharko ditu. Bertako produktuekin egindakoak izan behar dute mondejuek eta bere salda eta guztiz eraman beharko dira urriaren 31n, goizeko 10etarako, Resti pilotalekura.

Puntuazio irizpideak hauek dira: itxura, estalkia, ebaketa, zaporea, usaina eta nahasketako osagaien txikitze-tamaina.

Epaimahaia jatetxeetako sukaldari ezagunek eta gai honetan adituak diren herriarrek osatuko dute.

Sariak: 50.000 pezeta eta txapela irabazlearentzat; 35.000 pezeta 2.arentzat eta 20.000 hirugarrenarentzat.

● V. Aralarko gazta lehiaketa:

Artzantza lanbidea duten Aralarko artzainek har dezakete parte. Urriaren 31n gaztak Resti pilotalekura aurkeztu egingo da izen ematea.

Epaimahaia Aralarko artzainek eta jende ospetsuek osatuko dute.

Hiru sari banatuko dira: 50.000 pezeta eta txapela irabazlearentzat; 35.000 pezeta 2.arentzat eta 20.000 hirugarrenarentzat.

Egitaraua

10:30etan: Tobera, trikitixa, txistulariak, albokariak eta dultzaineroak.

11:00etan: Aritsautza erakusketa: herriarrak artilea egiten, gazta ontzen, mondejuak egiten.

Goizean zehar, ganadu erakusketa izango da: ardi eta ahari taldeak, pottokak.

12:00etan: VI. Mondeju eta V. Gazta lehiaketaren hasiera Resti pilotalekuan, Maialen Lujanbio eta Oihane Enbeita bertsolariekin batera.

Oharra: mondeju eta gazta lehiaketaren ondoren, mondeju pintxoak salgai jarriko dira.

Lehiaketa hasi eta gero, Antzinako Aralarko artzainen jokoak: pilota, saltaarrie, probaarrie, makila zeharkatzea, pustarri jolasa.

14:30ean: Bazkaria: mondejua, ardikia piparrekin, ardikia saltsan, gazta, ardoa, kafea, pattarra eta purua.

Oharra: bazkarirako txartelak salgai jarriko dira herriko tabernetan eta 943-160338 telefonoan. Prezioa: 2.000 pezeta. Mondeju eta gazta lehiaketetan parte hartzen dutenei bazkarirako txartela dohainik emanango zaie.

Bazkalondorenetik gaueko 9ak arte: bertsolariak, trikitilariak...

GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko zozketa: 300.000 pezeta bidaia ERRIFAK ONDORENGO LEKUETAN SALGAI:

Altzaga: Olagi sagardotegia.

Arama: Toki Alai jatetxea.

Ataun: Errotaundi okindegia, Lizarrustiko parketxea.

Beasain: Itzala, Anzizar eta Aterpe tabernak.

Ezkio-Itsaso: Itsasoko Ostatua.

Gabiria: Ostatua, Korta.

Gaintza: Kale Txiki, Oteñe.

Idiazabal: Xume eta Jeronimoenea.

Lazkao: Gerriko liburudenda, Gerriko eta Kiroldetgia tabernak.

Legorreta: Guadalupe eta Olaso tabernak.

Mutiloa: Mujika jatetxea.

Olaberria: Zezilioenea ostatua.

Ordizia: Pottoka, Arantxa eta Eroski taberna, Kodak expres argazkidenda.

Ormaiztegi: Itxune eta Arantxa tabernak, Estanko janaridenda.

Segura: Imaz taberna.

Zaldibia: Goiagi okindegia eta Illati taberna.

Zegama: Txanton eta Haizea tabernak.

Zerain: Ostatua.

Ordizia Kirol Elkarteko nesken futbol taldea: Goierriko zelai handiko talde bakarra

Pedro Nuñez eta Oskarbi Hernandez entrenatzaileen aginduetara 20 neske osatzen dute Ordizia Kirol Elkarteko nesken futbol talde berria. Hau da Goierriko dagoen zelai handiko nesken futbol talde bakarra. Gainontzekoak areto futboleant ari baitira. Pedro Nuñezek eman digu denboraldia ilusioz beterik hasi duen talde honen berri.

Taldea sortzearen ideia neskengandik atera zen. Elkartean zuzendaritza berria sartu zenean, neska talde bat prest azaldu zen futbol taldea osatzeko, zuzendaritza berrikoek oniritzia eman eta horrelaxe sortu zen talde berria. "Ez dugu jokalarik bila ibili beharrik izan berriak etorri dira taldera. Eta Goierriko beste neskarik futboleant jokatzeneko prest badago ateak zabalik ditugu", azaldu digu entrenatzaileak.

Jokalarik gehienak areto futboletik datoz Beasaingo edo Ordiziako taldeetatik, inoiz futboleant jokatu ez duenen bat ere bada taldean. Zelai handian esperientzia duen bakarra Pili Legarra da, honek urte asko daramatza futboleant jokatzen. Gainerako jokalariek nagusi



20 neska futbolari

Naiara Carlos Martos
Rakel Jimenez Goñi
Nekane Ostra Berasategi
Rakel Martin Gonzalez
Vanesa Ruano
Veronika Velasco
Taia Leon Piñeiro
Leire Diaz Martin
Alaine Monroy Usandizaga
Sandra Sainz Rodriguez
Maider Rocandio Mendez
Pili Legarra
Gloria Soto Fernandez de Retana
Amaia Rodriguez Lopez "Txiki"
Miren Jauregi Miranda
Maria Ros Aranburu
Yaisa Etxezarreta Aristondo
Amaia Sanchez Atxaga
Maria Duran Aierra
Josune Cordero Cabido

Ordizia
Ordizia
Ordizia
Ordizia
Ordizia
Ordizia
Ordizia
Ordizia
Beasain
Beasain
Beasain
Ordizia
Ordizia
Beasain
Beasain
Ordizia
Ordizia
Ordizia
Beasain
Lazkao

siki 1982-84 urteen artean jaiotakoak dira.

Lehenengo partiduetan dexte ikusle izan dituzte, "ez dakit nobedadea delako edo zergatik izango den, baina ikusle asko izan dugu, beste partidu batzuk ikusten baino gehiago ere

bai", dio Pedrok.

Entrenamenduetan, neskekin lan egiteko garaian, ezberdintasun handia aurkitu du Pedrok: "Nik 8 urte daramatza entrenatzaile lanetan Ordizian, baina orain arte beti mutilekin ibili izan naiz. Mutilak txi-

kitatik aritu dira futboleant, badakite baloia mugitzen edo jokaldiak egiten, neska batzuk lehen aldiz ari dira eta ez dakite horrelakorik edo areto futboletik datozenentzat, zelai handia oso ezberdina da, joko arauak ere ezberdinak dira... Neskekin fisikoki lan gutxiago egin daiteke, oinarri eskasagoa dute eta gutxinaka joan beharrean gaude". Neskak entrenamenduetara fin joaten dira eta partiduetan ere duten guztia ematen dute, "neguan ikusi behar dugu, zelaiko futbola eguraldi txarrarekin oso gogorra da, areto futboletik datozenek ea hori nola eramaten duten".

Gipuzkoa mailako txapelketan aritzen dira, 9-10 taldetako 3 multzotan banatuta. Ordiziaren multzoan Goierritik Donostiara bitartekoak eta kosta aldekoak daude. Ondoren Euskadi mailako txapelketa dago.

Oraingoz helburu bezala giro ona sortu, gustora egon eta ikasten joatea dute. "Hurrengo urteetan ea jokalariek jarraitzen duten eta hobetzen goazen. Beste taldeek esperientzia gehiago dutenez, aurrez ez genuen partidu bakar bat ere irabazteko itxaropenik eta lehen 3etatik 1 irabazi dugu. Gustora gaude", azaldu digu entrenatzaileak.



Iñausti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
002 ZBL. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

GOIERRITARRAren 10. urteurrena

ospatzeko kontzertua azaroaren 6an

Beasaingo Antzizar kiroldegian:

Ruper Ordorika & Mugalaris

Igelaren Banda

Tapia eta Leturia

Hiru Truku



GOIERRITARRA aldizkariaren lehenengo alea kaleratu zela 10 urte izango dira azaroan. Urteurren hau ospatzeko, Euskaldunon Egunkariarekin batera, kontzertua antolatu du azaroaren 6rako, Beasaingo Antzizar kiroldegian. Lau taldek joko dute: Hiru Truku, Igelaren banda, Ruper Ordorika & Mugalaris eta Tapia eta Leturia Erromeria Patxirekin. Gaueko 10,30etan hasiko da kontzertua eta 3 ordu inguruko iraupena izango du.



Sarrerak aldeaz aurretik jarriko dira salgai Goierriko hainbat puntutan. Jarraian dituzue sarrerak erosteko lekuak: **Ataunen**, Bittor jatetxean; **Beasainen**, Loinaz tabernan; **Idiazabalen**, Xume tabernan; **Lazkaon**, Alboka tabernan; **Ordizian**, Pottoka tabernan; **Ormaiztegin**, Itxune tabernan; **Seguran**, Imaz tabernan eta **Zaldibian**, Joxepane ostatuan.

Sarrerak aldeaz aurretik erosiz gero, 800 pezeta balioko du. Egunean bertan erosita, berriz, 1.000 pezeta.

GOIERRITARRA aldizkariak irakurleen artean 6 sarrera zozketatuko ditu. Horretarako, ondoan duzuen txartela bete eta Ordiziako 124 posta-kutxara bidaltzea besterik ez duzue. Urriaren 25ean egingo dugu zozketa eta urriaren 29ko alean jakinaraziko dira zortedunen izen-abizenak.

6 SARREREN ZOZKETA!

Bidali txartel hau ondoko helbidera:

Goierritarra aldizkaria 124 Posta Kutxa Ordizia

Izen-abizenak:

.....

Telefonia:

Herria:



1984-85 urteko San Prudentzioko ikasleak

Lazkaotarrak dira argazkikoak, 1984-85. urteetan jaiotakoak.

Atzeko lerroan, ezkerretik eskubira: Josune Garcia, Ruben Balle, Jesus Fernandez, Eneko Zudaire, Dario Mangas, Igor Blanco, Ruben Ramajo eta Rafael Lopez.

Erdiko lerroan: Carolina Gomez, Gema Sanz, Noemi Rodriguez eta Miriam Bergara.

Aurreko lerroan: Xabier, Rocio Fraga, Aitor Isidro, Tonia Anton eta Santi Izquierdo.



SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia
Ludoteka



Zabalik urte osoan zehar:

- ✕ 7:00etatik 20:00etara: Haurtzaindegia
- ✕ 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era jantokia (haur eskolarizatuak)
- ✕ 16:30etik 20:00etara: Haurtzaindegia-Ludoteka

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtoak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

PELUQUERIA Pascual

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
☎ 943 882 248 BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24 ☎ 943 88 95 83 LAZKAO

[Lagun ahotsa]

Edozein oroimen ona da.
Komentario bat, irrifarre bat.
Ez galdu arremana zure lagunekin.

OSO MERKEA DA!

Zure telefonoa

9.900 pzt.a.tik aurrera

7.000
pzt.a arteko



d e i a k *

Eta orain **MOVITEL 2000**
ustekabe atsegin bat zuretzat.

* Ofertak, 99/10/17 .rarte iraunkorrak

**ALTA
DOHAIN ***

ZURE GASTUA PLANIFIKATU

Planes
MoviStar

- Zuk erabakitzen duzu zenbait ordaindu hiler.
- Zure plana 2500 pztatik 30 minutu dei barne.

*Baldintzak galdetu ezazu

Ofertak, 99/10/31 .rarte iraunkorrak



Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89
Irunlarrea, 6 (Avda. Barañain kantoian). IRUÑA TEL.: 943/805089

www.movitel.com - movitel2000@movitel.com

Banatzaile ofiziala:

MoviStar

Telefonica

Ahdiseño

diseinu grafikoak

**Publizitatea
Errotulogintza
Diseinua
Katalogoak
Komunikazio integrala**

Ah diseinu grafikoak zure enpresaren begi-komunikazio beharrak betetzeko zerbitzu oso bat eskeintzen datorkizu.

Gure zerbitzuak zure irajaina egin edo eguneratzen, berau aplikatu, bai paper edota katalogoetan, inprimaketan, banatzea, fotomekanika eta abar barne, baita erakuntzen barne eta kanpo seinalizazioa, ibilgailuen errotulogintza, publizitatea, zorro eta hontzen diseinua, erakustazoketarako kartelak eta standen diseinua etab...

Lehenengo probatik, lan bukatua zure esku uzterarte prozesu osoa gure gain hartzen dugularik, komunikabideetara eza-gutaziarzte, enpresen gaur egungo beharrak ongi ezagutzen ditugulako.

Ah diseinu grafikoak, diseinu eta publizitateko zerbitzuaz gain, honakoak eskeintzen datorkizu:

- Argazki kalitatezko plotter zerbitzua, karteigintza eta paneligintza, transparentziak eta abar. (914mm ko zabalera duen HP DesignJet 2500 cp plotterarekin).
 - Eraikuntza edo instalazioen kanpo eta barne seinalizaketa.
 - Iradjinen tratamendu digitala.
 - Binilo ebaketa:
- Errotulogintza (ibilgailuak, kanpo-kartelak, seinalizazioak etb...)
 - Pegatinak
 - Margotzeko plantillak
- Erakusketa, biltzar, hitzaldi eta abarretarako panel eta kartelen muntaiak eta inprimaketa.



ibilgailuen errotulazioa

Kanpainak:

Badakizu lo egiten...

eta amesten?

sekretua hemen daukazu

Zuretzako prestatu dugun gure 50. urtemugako eskeintza berezia

SF 575



Modu ezin-hobe batean lo egin eta esertzeko. Bi motore ditu bizkar eta hankak erregulatzen.

"Goldlabel" SF 16 LS-1 koltxoia duela.

Orain bakarrik 780.500 Pta
160.000 Pta aurrezten dituzu

SF 535



Atsedene hartzeko modu eroso bat. Eskuz erregulatzen dira bizkar, buru eta hanken kokapena eta altuera.

"Goldlabel" SF 16 LF-2 koltxoia duela.

Orain bakarrik 448.900 Pta
100.000 Pta aurrezten dituzu

SF 175



Lo egin eta esertzeko modu atsegin bat. Bi motorek erregulatzen dituzte bizkar, eta hankak. Oinaldea berriz SF 14 LF-5 koltxo batek jasoa.

Orain bakarrik 471.800 Pta
90.000 Pta aurrezten dituzu

SF 115



Oinarritzko modelo bat. Oheburua erregulatuta daiteke, eta erdialdea SF 14 LF-5 koltxo batek sendotzen du.

Orain bakarrik 238.600 Pta
45.000 Pta aurrezten dituzu

amets
ATSENERAKO SISTEMAK

nagusia, 40
20.200 Beasain
Gipuzkoa
Tel/Fax: 943 88 68 51

50
Urte Matra
SWISSFLEX

Oheak eta osagaiak
Zorro nordikoak
Burukoak
Izarak
Koltxoi-estalkiak
Alfonbrak
Kutxinak
Gortinak
Besaulki mantak
Luma edo fibrazko nordikoak

